

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2594

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendariarena, zeinen bidez argitara ematen baita 2022ko maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako dirulaguntza-deialdian (Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan sartzen dena) jasotako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda.

Dirulaguntza publikoak ematean nahitaezkoa den publikotasun-printzipioa betetze aldera, 2022ko maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako dirulaguntza-deialdiak (Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan sartzen dena) 7.5 artikuluan ezartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lanbide Heziketako zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda, jasotako zenbatekoak adierazita. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak erabaki bidez onartu zuen deialdi hori, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2022ko maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda, eta bertan ondo zehaztea espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.– Berariaz jasotzea finantzaketan parte hartuko dutela, batetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta, bestetik, Europako Gizarte Funtsak, honako programa hauen esparruan:

a) EAEko EGIF Programa Eragilea, 2014-2020, REACT-UE ardatzaren barruan, Europar Bata-sunak COVID-19 pandemiari eta/edo FSE+ Euskadi 2021-2027 Programa Operatiboari emandako erantzunaren zati gisa.

b) 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Operatiboa.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 11.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria,
JUAN CARLOS IBARROLA SÁENZ DE UGARTE.

2023ko ekainaren 2a, ostirala

ERANSKINA

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Dirulaguntza (eurotan)
MJ22480001	Bridgestone Hispania Manufacturing, S.L.	59.748,15
MJ22480005	Bridgestone Hispania Manufacturing, S.L.	59.748,15
MJ22480011	Centro de Cualificacion y Empleo, S.A.	33.542,00
MJ22480020	Centro de Cualificacion y Empleo, S.A.	34.671,48
MJ22200004	CPES Centro Formación Mendibil Formazio	44.838,45